

Olinpiar estadiotik

Barraskiloak

Gorka Zabaleta

HAMABI egun daramatzagu Sydney, eta euriarekin esnatu garen lehenengoa izan zen atzokoa. Ez pentsa zaparrada izugarririk bota zuenik, tanta batzuk baino ez, baina nahikoa etzeko atariko barraskiloak berpizteko. Egunkariak erostetik bueltan nentorrela ikusi nituen, bakoitza bere bideari ekinez, beroketa saioa egiten-edo, Atletismoko probak gaur

hasiko baitira. Orain arte euren etkezuloan sartuta egon dira, baina iritsi zaie adarrak erakusteko garaia.

Belar artetik ateratzen ari dira, bakoitza bere erritmora. Nire oinetakoarekin Maurice Greene zapaltzeko zorian izan nintzen. Besteek baino muki arrasto luzeagoa utzi zuen, eta ate pareraino iritsi zen. Pare bat metroko alde atera zien atzetik zetozenei.

Ez dago zalantzarik, bera zen baratzeko barraskilorik azkarrena.

Hesian gora zihoana Sotomayor delakoan nengoen, eta metro batzuk gorago zegoena Sergei Bubka. Ez zen erronka makala haiena, urteekin hazitako eskola gero eta astunagoa baita.

Ordu erdi bat egon nintzen barraskiloek begira, norbait bederatzi metroko jauzia egi-

ten ikusteko itxaropenarekin, baina Pedrosa ez da aha- leginak alferrik egiten dituen horietakoa. Finalean saiaturko da behingoz muga hori gainditzen.

Bazter batean, Merlene Ottey aurkitu nuen. Bakarrik zegoen. Metro batzuk harantzago, berriz, barraskilo multzo handi bat ikusten zen. Badakit zer gertatzen zen: Cathy Freeman agertu zen, eta denek haren sinadura nahi zuten. Freeman bertakoa da, eta atletismoan urrea lortzeko itxaropen handiak ditu. Bere aurkari nagusia, Frantziatik etorritako Marie Jose Perec da. Baina, non da Perec? Australiara etorri zenetik inork ez daki non hartu duen ostatu. Ez du

beste barraskiloekin batera egon nahi izan, eta leku ezkutu batean aritu da entrenatzen. Bere taldekideek ere ez dakite non den. Mehatxuak jaso ondoren, Australiatik hanka egin duela ere esan dute, Singapur aldera, eta batzuek zalantzan jarri zuten atzo baratzeko pista nagusira agertuko zenik ere. Ezagutzen dutenek zioten misterio hori Freeman urduri jartzeko dela, adarra jotzen ari zaiola, dena antzerkia baino ez dela.

Perec agertu edo ez, gaurtik aurrera gure etxe atariko baratzeko pista nagusia izango da mundu osoko begi puntuan, eta bertako barraskiloak XX. mendeko azken idoloak. Eta ni Greene zapaltzeko zorian...

Marion Jonesi eta Michael Johnsoni irabaziko dionik ez da




«Ez gara garaiezinak». Atzo kazetarien aurrean agertu ziren Marion Jones eta Michael Johnson, biak elkarrekin. Eta esaldi horixe bota zuten. Baten helburua Sydney bost

urre irabaztea da, eta bestearena 400 metroak irabazteaz gain, bere munduko marka ontzea. Erronka zaila dute biek. Baina Jones 100 eta 200 metroetan, eta Johnson 400 metroetan, txapeldun olinpiar izango dira. Hortik aurrera zer lortzen duten, ikusi egin beharko da. Ez baitira, inola ere, garaiezinak; baina ez dute galtzen.

EEBBek galtzea komeni da saskibaloian, berriro Dream Team-a osatzeko

Beste garaipen bat (85-76 Lituaniari), baina beste atzerapauso bat. Ez da ondo ari EEBBeko saskibaloia Sydney; baina berdin jarraituko du, irabazten duen bitartean. Komeniko litzateke partiduren bat galtzea, umiliazioa harrotasunaren pizgarri izan ohi baita. Munich'72 Jokoetan errusiaren kontra finala galdu ondoren hasi ziren NBAko jokalariei bide egiten. Eta onenek egon behar dute selekzioan, ametsetakoko taldea izan dadin.



Marie Jose Perec protagonista, modu txarrean.

Zer esan ugari eragin du Marie Jose Perec atleta frantziarrak. Ez, ordea, lau urteko lehortearen ondoren berriro onenen artean ibili delako. Mehatxu bat aitzakia Sydney utzi, eta kazetariekin istilua Singapurren. Izarra izateak ordaina ere badakar, une onetan eta txarretan.

JOEL SAIGT / EPA

Marrathoia • MATTIN •



Inge de Bruijn Holandako igerilaria



Bezperan munduko marka berria ezarri, eta atzo urrezko domina irabazi zuen igerilari holandarrak 100 metro libreetan. Bigarren urrea du Sydney, eta, emakumezkoen artean, bera ari da nabarmen-tzen. Iragarpenak bete egin ditu.

Svetlana Khorkina Errusiako gimnasta



Taldekako lehiaketan ez zuen ondo jardun, nahiz eta azkenean berari esker irabazi Errusiak zilarrezko domina. Atzo, banakako saioan, izar handia dela erakusteko aukera zuen; premia ere bai. Baina huts egin zuen nabarmen: 11. postua.